

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

87 positibo berri
1.813 hildako EAEn
9.630 positibo guztira* UCIn EAEn

NAFARROAN

348 positibo berri
562 hildako
15.455 positibo guztira UCIn Nafarroan

*HERNANIN 326 (+5), ASTIGARRAGAN 54 (+1)

Gertaera errealetan gertatutako istorio positiboak, pantailan ikusteko aukera gaurtik, Migrazinearekin

Gaur, *El Médico Africano* filma eskainiko da Biterin. Izan ere, gertakari errealetan oinarritutako istorio positiboak, migratzaileak, eta «normalean imigranteak filmetan ikusten ez diren lanbideak islatzen dituzten» 6 film proiektatuko dira, gaurtik hasita.

HERNANI MIGRAZINEA

Gaur emango zaio hasiera, Amherrek antolatutako Migrazineari. «Migrazioaren gaiak dituzten filmak ikusi, aztertu eta eztabaidatzeko saioak izango dira», eta iraila eta urria bitartean proiektatuko dira, Biterin. Guztira 6 pelikula eskainiko dira, eta horietako 3 «saio bereziak» izango dira; Goiz Eguzkik, Plaza Feministak eta Hernaniko Gaztelekuak bat egin baitute,

aurtengo proiektuarekin.

Saioak doakoak izango dira, aretoa bete arte, gainera behin filma amaituta, «filmetan islatutako zenbait gairen inguruko eztabaida dinamizatua egingo da».

'El Médico Africano' filma, gaur

Gaurko saioa, berezia izango da, Goiz Eguzkirekin elkarlanean antolatutako saioa delako. Gainera, hiru ordu eta erdiko



Julien Rambaldiren, 'El Médico Africano' eskainiko da gaurkoan, Biteriko pantailan, goizeko 10:00etan hasita.

iraupena izango du, 10:00etatik 13:30etara bitartean, hain zuzen.

Julien Rambaldiren zuzendaritzapean, filmak 1975 urtean

Kinshasako mediku graduatu berri batek, Frantziako herri txiki batean lanpostu huts bat onartu ondoren sortzen zaiz-

kion gertaerak kontatzen ditu. Antolatzailerek jakinarazi dute, «musukoa derrigorrezkoa» izanongo dela. **K**

Hernanira bizitzera datozen herritarrentzako harrera protokoloa berrituko du aurten, Hernaniko Udalak

Hernaniko Udaleko kulturartekotasun arloak, «Hernanira etorri berrien» Harrera Protokoloa berrikusi eta berritzeko prozesua abian jarri du, iraila eta azaroa bitartean ekingo zaio lan honi.

HERNANI UDALA

Hernanira etorri berrien Harrera Protokoloa berrikusi eta berritzeko prozesua jarri du abian Hernaniko Udalak. Hasiera batean gainera, martxoa eta ekaina bitartean garatzea aurreikusi zuten, hala ere, Covid-19a medio, Udalak jakinarazi du, prozesua atzeratu egin dela, eta martxoan hasitako lanari «berriro ekingo zaio iraila eta azaroa bitartean».

Prozesuaren helburu na-

gusia, «Hernanik etorri berriei egiten dien harrera ezagutu, baloratu eta harrera protokolo berritu eta hobetu bat sortzea» izango da. Horretarako gainera, Udalak, lan hau burutzeko, gaur egun harrera prozesuetan modu zuzenean parte hartzen duten entitate eta eragile guztiekin lan egin nahi du, baita herritarren iritziak eta ekarpenak jaso ere.

Hiru urrats, prozesuak

Lehenengo urratsa, gaur egun

Hernanik etorri berriei egiten dien harrera ezagutu eta baloratzeari izango da, pasa den otsaila eta iraila bitartean. Bigarrena, Hernanik etorri berriei egin nahi dien harreraren pentsatu eta Harrera Protokolo zirriborroa egingo da, urrian. Eta hirugarrenik, Hernaniko harrera protokoloa kontrastatu, ekarpenak egin eta eragile ezberdinen artean adostuko da, azaroan.

Bilera irekia, urriaren leian

Hernaniko Udalak, otsailean hasi zen lehenengo urratsarekin. Hori horrela, «lehendabizi hainbat elkarrizketa sakon egin dira egungo zerbitzu eta baliabideen inguruko informazioa eta balorazioak lortzeko». Eta orain, ho-

nekin jarraitzeko, «bilera ireki bat antolatu da», urriaren leian, hain zuzen. Bilera ireki honek, elkarrizketetan jaso den informazioa eta balorazioak aurkeztuko dira eta «balorazioa hurbildutako guztiekin osatzeko aukera ere egongo da».

Arratsaldeko 18:00etan hasiko da bilera, Biterin. Gainera, osasun prebentziorako ezarritako irizpide eta neurriak ondo betetzeko asmoz, irailaren 29a baino lehen eman beharko da izena, hau da, datorren asteartera arte dago aukera, apuntatzeko.

Prozesuaren dinamizazioa eta aholkularitza teknikoan Aztiiker Soziologia Ikergunea ariko da, eta beraz izena emateko, mbarrenetxea@aztiiker.eus helbi-

de elektronikora idatzi, edo 943 59 30 06 edo 608 018 512 (Aztiiker) telefonoetara deitu behar da.

Udalak jakinarazi du, «konfirmatzerakoan», bi galdera egingo zaizkiola herritarrei, alde batetik, «hizkuntza perfila», hau da euskara ulermen gaitasuna, eta bestetik, «haurren zaintzarako baliabiderik behar ote duen». Lan saioaren hizkuntza bertaratutako herritarren perfilari egokituko zaiola gehitu du Udalak. **K**

«Urriaren leian, bilera ireki bat antolatu da, eta aurrez izena eman behar da»

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatía

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

EGURALDIA
GAUR
Hodeiak eta ostarte zabalak nagusituko dira eguerdi partean. Hodei dezenterekin argituko du egunak; goizean hodeitza arindu eta eguerdi parterako giro nahiko argia gailenduko da eta temperatura ere balio epeletara iritsiko da. **Min.16° / Max.23°**

BIHAR
Zerua lainotuta eta euritarako egongo da. Orduak aurrera egin ahala, ezeگونkortasuna areagotzen joango da, eta arratsaldean eta gauean zaparradak sarriago botako ditu. **Min.17° / Max.20°**

ARGITARATZAILEA
DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Argazkarako Udala

Ereñotzuko Auzo Udalak

GOZUEKANO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

URUGOIA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Larunbaterako auzo batzarrerako deia, Ereñotzuko auzo Udalak

Larunbat honetarako auzo batzarra antolatu du Ereñotzuko auzo Udalak, eta bertaratzeko deia luzatu du. Goizeko 10:30etan izango da, frontoian.

EREÑOTZU AUZO UDALA

Larunbat honetan, Ereñotzun auzo batzarra egingo da, goizeko 10:30etan hasita. Izan ere, Ereñotzuko auzo Udalak, esku artean duen egitasmoetako bat, Ereñotzuko futbol zelai inguruaren eraberritzea da. Baina Covid-19 osasun krisia dela eta,

bertan behera geratu zen, «bertan behera geratu zen konbokatutua genuen auzo batzarra».

Hori horrela, egora «pixkaka normalizatzen ari den honetan, eta beharrezkoak diren neurriak jarrita», deialdi berri batekin dator Ereñotzuko auzo Udalak. Egitasmo honen zehaztapenerako auzotarren «irritzi eta

ekarpenak ezinbestekoak direnez», larunbatean aipatutako auzo batzarra egingo da. Goizeko 10:30etan hasita, frontoian. Eta noski, bertaratzeko deia luzatu du auzo Udalak.

Jorratuko den gaiak auzoarentzat duen «interesa eta garrantzia ikusita, komenigarria litzateke, ahalik eta auzotar gehien elkartzea bertan». Hau kontutan hartuta, gonbitea luzatu nahi izan du auzo Udalak: «zuri gonbitea luzatzearekin batera, inguruan interesatuta egon litekeen guztiari abisua pasatzea eskertuko dugu». **K**

Atzo askatu zuten Oihane Bakedano, 18 urtez espetxean egon ostean

2002an atxilotu zuen Guardia Zibilak Oihane Bakedano. Atzo goizean gelditu zen aske, Madrilgo Soto del Realen.

HERNANI PRESOKAK

Hemezortzi urte igaro ditu Oihane Bakedanok espetxean, baina atzo goizean, aske gelditu zen hernaniarra, Soto del Realen, «duela zenbait hilabete Logroñora eramango zutela iragarri zen

arren». Atzo beraz, senide eta lagunak, bertara gerturatu ziren, herrira buelta laguntzeko.

2002garren urtean atxilotu zuen Guardia Zibilak, Donostiako Egia auzoan, «ETako kide izatea egotzita», eta Aizeti Fernandezekin batera espetxera bidali zuen Auzitegi Nazionalak.

Espetxealdiaren urteak «urruti» igaro ditu Bakedanok. Urte honen hasieran, Andaluziatik Logroñora ekarriko zutela adierazi zuen Espetxe Zuzendaritzak, «baina ez zuten eraman».

Hori dela eta, Soto del Realen «berreskuratu du Bakedanok, askatasuna». **K**



Oihane Bakedano. Argazkia: Etxerat.

Kike Amonarriz gaur, eta 'Gorria' ikuskizuna etzi, Euskaraldiaren eskutik

Gaur 'Euskararen bidegurutzetik' liburua aurkeztuko du Kike Amonarrizek, arratsaldeko 19:00etan Biterin, eta gaur bertan ere eman daiteke izena.

HERNANI EUSKARALDIA

Gaur arratsaldeko 19:00etan, Kike Amonarrizek, Euskararen bidegurutzetik liburua aurkeztuko du, «Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari eta normalizazioari buruzko ezagutzak jendarteratu ditu bertan». Izena emateko hainbat modu daude, euskaraaridu@dobera.eus helbide elektronikora idatzi, 627 285

904 telefonora deitu edo Biteriko sarreran dagoen orria beteta.

'Gorria', ostiralean Euskaraldiarekin jarraituz, Gorria ikuskizuna eskainiko da ostiralean, arratsaldeko 19:00etan hasita. Sarrerak oraindik eskuragai daude, Doberako bulegoan. Emanaldian segurtasun neurriak hartuko dira. **K**



Etxebarrieta eta Amuriza, 'Gorria'n.

Argazki lehiaketa abian, Mendiriz Mendik

Aurten ere, argazki lehiaketa antolatu du Mendiriz Mendik, 41garrena izango da, hain zuzen.

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Ohiturei jarraitzeko asmoz, Mendiriz Mendik, aurten ere argazki lehiaketa jarri du abian. Aurtengoa 41garren edizioa izango da, eta jakinarazi dute, «elkarteko bazkideez gain, Hernanin bizi diren argazkilari ez profesional guztiek har deza-

ketela parte». Gehienez, 6 eta gutxienez 3 argazki aurkeztu behar dira, eta horietatik batek «Hernanikoa izan behar du».

Gaia librea da, eta argazkiak Mendiriz Mendiko lokalera eraman behar dira, urriaren 8a baino lehen. Astelehen eta ostegunetan, gaueko 20:00etatik 21:00etara bitartean.

CD edo USB batean entregatu behar dira argazkiak, eta horrez gain, partaidearen izen abizenak, telefonoa eta aurkezten diren argazki kopurua adieraziz.

Oharrak, baldintzak eta sariak, kronika.eus webgunean daude ikusgai. **K**

Bi asto agertu dira, Astigarragako Zimelurritza baserrian

URUMEA GALDUTAKOAK

Astigarragako Zimelurritza baserrian, 2 asto azaldu dira. Hiru egun daramazkite bertan, eta lotuta daude kanpoaldean. Astoen jabeak deitu dezala 943 55 66 47 telefonora.

Etzi zita, Aztifemiekin

ASTIGARRAGA AZTIFEMIAK

Ikasturteari hasiera emateko asmoz datoz Aztifemiak, hori dela eta, ostiralerako, *Tú, mujer salvaje* ekimenaren inguruan solasaldi bat antolatu dute, arratsaldeko 18:00etan, Emakumeon txokoan. *Esto no es normal. Darse cuenta del maltrato* gaia izanik. Irene García izango da hizlaria, eta behin amaituta, solasaldiarekin batera merienda ere eskainiko dute.

Bihar amaituko da, Kultura ikastaroen matrikulazio epea

HERNANI KULTURA IKASTAROAK

Bihar, amaituko da Biteriko kultur ikastaroen izen ematea. Presentzialki egin daiteke, Biterira bertaratuz, goizeko 09:00etatik 14:00etara, edo arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Online ere apuntatu daiteke: web.hernani.eus/kultura.

Eskaerak aurkezteko azken eguna, bihar

HERNANI UDALA

Lehiaketa oposizio bidez, Kulturarteko Plaza Feministako koordinatzaile lan-poltsa osatzeko hautaketa prozesua ireki zen abuztu bukaeran, eta bihar da eskaerak aurkezteko azken eguna. Plaza mota administrazio bereziko eskalakoa, azpieskala teknikokoa, edo erdi mailako teknikarien klasekoa da.

Euskaraldian banakakoen izen ematea

HERNANI EUSKARALDIA

Bihartik aurrera, Euskaraldiko ekintzetan banaka parte hartzeko aukera egongo da, banakakoen izen ematea irekiko baita.

IRAGARKI MERKEAK

Egurrezko espalderra salgai. Neurriak 2,00 × 2,10 metro. Egoera oso onean.

Deitu: 652 707 215.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**